

Santibate fundamentalista

Erretretan sartuz geroz ez zuen biziki kasu ematen Peyo Lacazek zer egun zen, egun guziak, asteko egun guziak, urteak joan arau hasi zitzaizkiolako era berean moldatzen. Errient zeneko usaiari eutsiz, goizik jeikitzen zen, hirian inguru bat egiten eta ontsa airestatu eta askaritera sartzen. Gero berak "bere luma lantxoak" izendatzen zituenak segitzen zituen eguerdi arte.

Lana uzten zuen autoa garaiatik ateratzeko doia, inkas bere emazteak behar baldin bazuen eta bereziki beste batek, tokiko edo estranjer, ez ziezaion etxearen aitzineko parkina ebats.

Zintzur karraka bat egotzi zuen haserrez ohartu zelarik igande goiza zela eta parreko oinbide guzia autoz tapatua zela ogika jiten zirenengatik.

[...] Ogia fite erosten den gauza da. Deduktatu zuen beraz autora iganen zela eta barrandan egonen garaiatik erdi ateraturik bere lekua libre, aske itzuli arte.

[...] Kanpañako bi lodito kolore gorri ateratu ziren irriz eta goratik euskaraz mintzo. Batek auto madarikatuaren norabidea hartu zuen. "Ez da goizegi" baina berriz gibelerat jin eta tertulia arrabiatu zuten bide erdi erdian. Tuta ukaldia egin zien. "Kentzen dizit, kentzen Monsieur Lacaze, presatua bazira". Eta biak haren moko tinkia ikustearekin karaila ozen batean berexi ziren. Ixtripua doi doietarik ekiditu zuen gazteak. Lacaze ez zen ohartu ere hainbestetaraino kexu baitzen : "Ez da posible laborari horiek, ez dira deusetaz ohartzen, ez dute deus errespetatzen Frantziako legeetan, kalakan biderdian! Eta ene trufan gainera. Erranen dute gauza ttipia dela baina ez, herkidetza problema da, zer heinetaraino bakoitza gai den bere baitatik emateko instituzioak, legeak eta ondarrean bizia funtziona daitezen."

Bi ikasle ohien agurrari ez zion erantzun, abantxu lehertua izan eta atea banbatuz etxerat igan. Emaztea kakiterat igorri zuen, bere betiko "Ez du balio zainetan jartzea, zerendako balio du erretretan izatea bestenaz" eta "Zertarat behar zuen autoa ateratu igandez, arratsean berriz sartzeko. Sartze land-deros hortarik gainera". Bulegotik orroa egin zion, gehiago bere buruaren balakagarri arrapostu gisa baino : printzipio afera bat zela, a ba emazteek ez zituztela printzipioak axola, horrek zuela diferentzia egiten intelektualak eta besteen artean".

Gehiago ez zitekeen jar bere bulegoan. Estatu horretan ez zezakeen idatz, emaztearen botz mekella antizipazioz entzuten zuen "Hobe duk hire iskirioneetara joatea". Ez zuen fitxik konprenitzen, ez zen sekulan kreatiboa izan. Funtsean, ez zen eskola normaletik pasatu, ordezkari gisa hasi zen eta gero titularizatua izan zen. "Normal den gauza! ez dut besterik erraten. Nihaur sindikatean horren alde borroka-tu naiz beti. Baina halarik ere diferentzia hor da".

Inguruka egon zen bulegoan, gidoia arraegiten, bereak eta asto beltzarenak erraten zizkion kanpañar ezjakinari, hezkuntza zibiko klase bat jasanarazten zion arraultze ta zingar jaleak, urrikiak janik, bere anti liberté-égalité-fraternitéa aitortu arte. Denbora joan arau bere bulegoaren intimitateak bildurik inkonzienteki, jarria zen bere mahaian eta hasia zen bere noten irakurtzen.

Navarra cloubeko konferentzia baten prestatzen ari zen zetorren hilabeteko. [...]

Lanean ari zelarik, aktibitatean hobeki errateko, lana jende langileek ez baitute egundaino uzten, denbora eskasez eta lan ongi finituaren gustuz, barnean irakitan senditzen zuen idazteko behar hori beti atzeratu zuen. Baina beti buruan eduki erretretan hasiko zela. Behar hori azkartzen zitzaion agresatua senditzen zelarik bere ideia eta printzipioetan. Orai hasia zuen lana, Baigorriin eragin haundia ukan zuen errient familia bati buruz zuen. Dagerressartiarak. [...]

Xutitua zen Peyo eta haren botz ederrak 'bulegoa betetzen zuen, estiloa eskutan jada
 konferentzia ematen ari baitzen eta begitartea argitua zion publikoan egiten zuen efetuak.
 50 Triki soinu batek moztu zion oldarra. Puñala bizkarretik sartu bailitzaion. Irrati lokala zen.
 [...] Xilintxa azantzek jauzarazi zuten kaderan. Estilo maitea eskuetarik lerratu zen. Bozak
 ezagun zituen. Kolatu zen leihoan berehala. Kabalkada bat! Orai udaberrian!
 Probokazionea zen, duela urte batzuk bultzatu berrikeria hori errepikatzen zuten. Elkarre
 guziak Batasun komertzialaren ekimenez bilduak izan zirelarik, gazteei galde egina izan
 55 zitzaien kabalkada agorrilaren 15ean ezartzea, hiriaren puska bat animatzeko. Eta ezetz!
 Euskaraz ari ziren gazteak. Hiriaren erdian! Sekulan ez zen horrelakorik ikusi Saint
 Etienne de Baigorryn. Etxeetan bai, nehor ez zuelarik jenatzen. Bestenaz kanpañako
 lenguaia zen hori. Baionako artxibotegietan elekatu zuen Historia erakasle ezagutu batek
 60 ziurtatu zion Euskal Herriko hiri guzietan ez zela sekulan euskaraz arizan, frantsesez
 baizik. Eta ez bazen hala gaskoinez. Hori dokumentuz frogaz zezakeela.
 [...]Eta beste hura han, bilkura komertzialean zen bazter nahasle lepamehe hura zen.
 Gelak behar zituen biltzeko. Zer egiteko bilkura horietan? Behar litezke segitu ikusteko zer
 egiten duten beren gauetz. Galde egin, galde egin! Eta zerbait galde egiten zaielarik haran
 guziaren onerako : deus. Beharra sortzen dute, elkarreak sortzen dituzte eta gero
 65 estaduak edo diru publikoak ordaindu behar. Aihartu zikina. Segur naiz... bai, segur naiz
 hori dela : ama Bankarra du. Nihaurek diot irakurtzen erakutsi. Leitzen erakutsi diegu,
 frantsesa erakutsi diegu, hitzik ez baitzekien honen amak, eta hara zertarat baliatzen
 duten. Euskara dute errefera! Euskara bihurtzeko gure kontra.
 Ageri da ez dela naturala, ene etxearen aitzinerat nahitarat jin dira, ene nardaraztera, ene
 70 idazkietarik ezaguna naizelakotz. Ni naute etsaia eta uste dute utziko ditudala! [...]

Beste batzuk ageri dira. Hitz ordua hemen egin dukete. Abiatu nahi izan dute beren
 ahalgekeria ene ataritik. Zer uste dute errexetuko naizela? Zer? Jauntziak ere aldatu
 dituzte! Zer dituzte xingola urdin eta hori horiek? Urteetan gorri eta urdinak izan direlarik
 Frantziaren ohoretan. Hori ere nahi digute kendu?"

75 Bezperan pesta eginik txarrangaren beha zeunden dantzariak gauza harrigarriaren lekuko
 izan ziren. Lotizamenduko bigarren etxeko atea brixteaz ideki zen eta ikusi zuten gizon
 tipito bilo xuri bat eroa bezala ateratzen. Bizarra gaizki moztua zuen, eriek duten
 bezalakoa eta bolant jauntzi zahar horitu batez beztitua zen. Ahoa makur zuen eta labea
 bezala idekia. Esku dardarti batez entseatu zen gazteenaren inarrostera, baina agure
 80 ukaiek ez zuten jada indarrik, azken hatsa botatzera doan batek baino gehiago. Inguruan
 ziren hamar gazteek denbora eman zuten zintzur gogortu horretarik azantz izpirik
 ateratzen ez bazen ere, orroaz ari zela konprenitzeko, oihuka bere azken indar guziez.
 Bizia bermatu zion organoak gehienik behar zuen mementoan utzi balu bezala.
 Ate idekitik emazte erne bat ateratu zen. Matel gogortuak baretu zitzaizkion gazteei agur
 85 ezti baten egiteko. "Ez iezaiozue kasurik eman. Liberti zaitetzte ontsa. Printzipioek diote
 kalte egiten."
 Garkolatik hartu zuen bere piltzarra eta kasik herrestan barnerat bildu.

BOTOILETAN, Antton Luku
 Maiatz elkartea, 1998.

COMMENTAIRE GUIDÉ :

☞ Idazki honen azterketa eginen duzu ondoko gogoeta hauen inguruan :

Errient ohiaren paranoia.

Inguruko jendeetaz duen ikuspegi gutieskorra.

Euskal kulturaren ukatzea.

TRADUCTION :

☞ Zati honen frantsesezko itzulpena eginen duzu :

"Bezperan pesta eginik..."-tik (75.l) "...herrestan barnerat bildu."-raino (87.l)